# GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
# *INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO*

| AURKIBIDEA | ÍNDICE |
|---|---|
| 1. SARRERA | 1. INTRODUCCIÓN |
| 1.1. Aurrekontuzko Araudiaren Genero- Eragina | 1.1. El Impacto de Género de la Normativa Presupuestaria |
| 1.2. Arau-eremua | 1.2. Marco Normativo |
| 1.3. Txostenaren prozesua eta egitura | 1.3. Proceso y estructura del informe |
| 2. BIZKAIKO GIZON ETA EMAKUMEEN EGOERA | 2. SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES EN BIZKAIA |
| 2.1. Demografia | 2.1. Demografía |
| 2.2. Ekonomiaren eta gizartearen arloko baliabideak atzitzea eta kontrolatzea | 2.2. Acceso y Control de los recursos económicos y sociales |
| 2.3. Gizarte eta politika arloetako partaidetza eta eragina | 2.3. Participación sociopolítica |
| 2.4. Erantzunkidetasunezko gizarte antolakuntza | 2.4. Organización social corresponsable |
| 2.5. Emakumeen aurkako indarkeria | 2.5. Violencia contra las mujeres |
| 3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN ZERBITZURA DAGOEN PERTSONALAREN ORDEZKARITZA, SEXUAREN ARABERA | 3.REPRESENTACIÓN POR SEXO DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA |
| 3.1. Parte hartzearen osaketa Bizkaiko Batzar Nagusietan | 3.1. Composición de la participación en las Juntas Generales de Bizkaia |
| 3.2. Parte hartzearen osaketa Bizkaiko Foru Aldundia | 3.2. Composición de la participación en la Diputación Foral de Bizkaia |
| 4. AURREKONTUZKO PROGRAMEN GASTUAREN | 4. EL GASTO DE LOS PROGRAMAS PRESUPUESTARIOS |
| 4.1. Aukera- Berdintasunean identifikatutako gastua | 4.1. Identificación del gasto en Igualdad para mujeres y hombres |
| 5. GENERO- INPAKTUAREN AURREKO EBALUAZIOA | 5. EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO DE GÉNERO |
| 5.1. Programen inpaktu potentziala | 5.1. El impacto potencial de los programas presupuestarios |
| 5.2. Ondorioak | 5.2. Conclusiones |

6. GENERO- IKUSPEGIAREKIKO AURREKONTU BATERAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

6.1. Taldeetako sailkapenagatiko jokaera ikuspegira

6.2. Aurrekonturako- prozedura

1. SARRERA

1.1. AURREKONTUEN ARAUDIAREN GENERO-ERAGINA

Lehentasun eta ikuspegi sozialak eta politikoak neurri zehatz eta zenbagarri bihurtzen dituen tresna da aurrekontua, eta eragin zuzena edo zeharkakoa dute herritarrengan.

Hala ere, herritarrek ezberdintasun egoerak dituzte, sexuaren arabera, baliabideak eskuratzean eta kontrolatzean eta eremuen eta erabileren araberako presentzian. Lanaren behin betiko sexu-banaketa, rolak eta estereotipoak izan dira gure gizartearen garapenaren zutaberik oinarrizkoenak. Hortaz, egiturako ezberdintasunak dira horiek eta, ondorioz, irauteko joera dute, kausetan eta ondorioetan nahita jardun ezean.

Ia arlo guztietan ikus daitekeenez, egoera ezberdinak dituzte emakumeek eta gizonek. Hala, ezberdintasun nabarmena ageri da ongizate mailan, bizitza-kalitatean, erabakiak hartzeko boterean, ahulezietan, baztertuak izateko arriskuetan eta indarkerian.

Zerga-bilketaren modalitateak eta kontzeptuak, baita gastu publikoaren lehentasunak, eremuak eta banaketa ere: gizarte zerbitzu mota ezberdinak sortzeak eta indartzeak, lurralde antolaketak, errepideen eraikuntzak, garraio publikoak, landa garapenak, ingurumena zaintzeko formulen aldeko apustuak, enplegurako prestakuntzak eta pizgarriek eta garapen ekonomikoak, besteak beste, ondorioak eta etekinak dakartzate eta, azken finean, eragin ezberdina dute Bizkaiko emakumeen eta gizonen artean, gainerako gizarteetan legez.

6. PROPUESTAS DE MEJORA PARA UN PRESUPUESTO CON ENFOQUE DE GÉNERO

6.1. Enfoque de actuación por clasificación en los Grupos

6.2. Procedimiento de presupuestación

1. INTRODUCCIÓN

1.1. EL IMPACTO DE GÉNERO DE LA NORMATIVA PRESUPUESTARIA

Los presupuestos son la herramienta que transforma los enfoques y prioridades sociales y políticas en medidas concretas y cuantificables, incidiendo directa o indirectamente en la ciudadanía.

Pero esta ciudadanía presenta situaciones de desigualdad, en función del sexo, en el acceso y control de los diferentes recursos y en su representación por ámbitos y niveles. La tradicional división sexual del trabajo, de los roles y estereotipos, han sido los pilares más básicos sobre los que se desarrolla nuestra sociedad, por lo que estas diferencias tienen un carácter estructural y por tanto una tendencia a perpetuarse si no se actúa conscientemente sobre sus causas y consecuencias.

En la práctica totalidad de las áreas se comprueba que mujeres y hombres tienen situaciones distintas, reflejando una desigualdad significativa en el nivel de bienestar, la calidad de vida, el poder en la toma de decisiones, las vulnerabilidades, los riesgos de exclusión y la violencia.

Las distintas modalidades y conceptos de recaudación, así como las prioridades, ámbitos y distribución del gasto público: desde la creación y refuerzo de distintos tipos de servicios sociales, la ordenación territorial, la construcción de carreteras, el transporte público, el desarrollo rural, la apuesta por distintas fórmulas de cuidado del medio ambiente, la formación e incentivos para el empleo y el desarrollo económico, entre otros, producen unos efectos, beneficios y en definitiva un impacto diferente en las mujeres y hombres de Bizkaia, como en todas las demás sociedades.

Aurrekontuak ez dira neutralak, zeren eta ezberdintasun horiek hobetzeko, mantentzeko edo, nahigabe baina sorgor, egoera larriagotzeko ahalmena baitute bere eskumenaren eremu guztietan. Hortaz, eginkizun erabakigarria dute berdintasunaren helburuak lortzeko.

Ildo horretan, Aurretiazko Ebaluazio Txostena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren generoaren araberako eraginari buruzkoa, hauexek argitzeko hastapena da:

- Zein neurritan eta zelan eragin dezakete 2014ko aurrekontuek emakumeen eta gizonen ezberdintasunak gutxitzen lagungarri izan daitezen.

- Foru Aurrekontuak helburua lortzeko ahalik eta lagungarrienak izateko beharrak eta proposamenak dira, hots, Bizkaiko gizarteak berdintasunaren helburuak lortzeko modua izan dezan.

1.2. ARAU-EREMUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2014rako Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren generoaren araberako eraginari buruzko Aurretiazko Ebaluazio Txosten hau legeria eta araudi hauetan dago kokaturik emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politiken ondorioetarako:

EAEren eremua

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

ADMINISTRAZIOAREN JARDUERAN ETA ARAUDIAN BERDINTASUNA SUSTATZEARI buruzko IV. KAPITULUAN, administrazioek arlo horretan bete beharreko xedapenak garatu dira. Hauexek nabarmentzen dira testuinguru horretan:

Los presupuestos no son neutrales, puesto que tienen la capacidad de mejorar, mantener, o incluso de manera no intencionada pero sí insensible, agravar estas desigualdades, en todos los ámbitos de su competencia. Tienen por tanto un papel decisivo en la consecución de los objetivos de igualdad.

En este sentido, este primer informe de evaluación previa del impacto en función del género de la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, es un acercamiento inicial para clarificar:

- En qué grado y cómo los presupuestos de 2014 pueden contribuir a la reducción de las desigualdades entre mujeres y hombres.

- Las necesidades y propuestas para que los Presupuestos Forales contribuyan en la mayor medida posible, a que la sociedad de Bizkaia pueda alcanzar los objetivos de igualdad.

1.2. MARCO NORMATIVO

El informe de evaluación previa del impacto en función del género de la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2014, se enmarca, a efectos de políticas de igualdad de mujeres y hombres, en la siguiente legislación y normativa:

Ámbito de la CAPV

La Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres

En su CAPÍTULO IV DE MEDIDAS PARA PROMOVER LA IGUALDAD EN LA NORMATIVA Y ACTIVIDAD ADMINISTRATIVA, desarrolla las disposiciones que han de acometer las administraciones en este ámbito, resaltando en este contexto:

**GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA**
***INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO***

19. art. – Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea.

*1.- Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.*

FINANTZAZIOARI BURUZKO III. KAPITULUA:

14. artikulua. – Xedapen orokorra.

*Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.*

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsitako abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpena erreferentzia garrantzitsua da aztergai dugun arloan. Izan ere, hauexek dakartza: “Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzko jarraibideak eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzea”.

2010eko otsailaren 9an onetsitako Jarraibideak aldatu dituzte azken horiek, eta aurretiazko txostena izatetik salbuetsita dauden edo ez dauden arauak argitzen dituzte, baita dokumentuak izan behar duen egitura eta edukia ere.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eremua

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan, hirugarren paragrafoan gehitu den 55. artikuluan (3/1987 Foru Araua aldatu duen ekainaren 12ko 7/2013 Foru Arauaren arabera), beren beregi exijitzen da Batzar Nagusiaren Arauak izapidetzean generoaren araberako

Artículo 19. - Evaluación previa del impacto en función del género.

*1.- Antes de acometer la elaboración de una norma o acto administrativo, el órgano administrativo que lo promueva ha de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en los hombres como colectivo. Para ello, ha de analizar si la actividad proyectada en la norma o acto administrativo puede tener repercusiones positivas o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad.*

En su CAPÍTULO III DE FINANCIACIÓN:

Artículo 14. - Disposición general.

*Las administraciones autonómica, foral y local consignarán y especificarán anualmente en sus respectivos presupuestos los recursos económicos necesarios para el ejercicio de las funciones y la ejecución de medidas previstas en la Ley.*

La Resolución 40/2012 de 21 de agosto, aprobada por el Consejo de Gobierno Vasco, que constituye un referente importante en la materia que nos ocupa, contiene las “Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres”.

Estas modifican las Directrices aprobadas el 9 de febrero de 2010, clarificando las normas exentas o no exentas de informe previo, así como la estructura y contenido que ha de tener el documento.

Ámbito de la Diputación Foral de Bizkaia

La Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, que en su artículo 55 incorpora un tercer párrafo (a partir de la Norma Foral 7/2013, de 12 junio de modificación de la Norma Foral 3/1987) haciendo expresa la exigencia de informe de evaluación previa de

eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostena egitea:

*"3. Era berean, horiekin batera, xedapen horietan ezarritako neurrien genero eraginaren ebaluazioari buruzko txostena eman behar da."*

Ogasun eta Finantza Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernuak hala eskatuta, uztailaren 23ko 2140/2009 Foru Araua eman zuen. Horren bidez, memoriak eta helburuak egitean eta gastu programaren ekintzetan eta adierazleetan erabiltzeko irizpideak ezarri ziren, generoaren eta gazteriaren ikuspegitik.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen baitan kokatzen da Agindua, eta aurrekontuaren helburuak, ekintzak eta adierazleak berriz aztertu eta bideratu beharra aipatzen da, halako moldez non aurrekontu programa bakoitzerako ezarritako berdintasun helburuak egiaztatzea ahalbidetuko duen tresna bideratu eta abiarazi ahal izango baita.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2014ko Aurrekontu Orokorrak Egiteko Jarraibideak. Hauexek ezarri dituzte aurrekontuak egiteko irizpideetan:

*Beren jarduketek genero berdintasunaren eta gazteriaren arloan duten eragina baloratu beharko dute sailek. Horretarako, beren beregi ezarritako eragileek modu egokian neurtu behar dute programa bakoitzaren betetze-maila. Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren ekainaren 23ko 2140/2009 Foru Aginduaren bidez, zehatzago ezarri ziren helburuak, ekintzak eta adierazleak definitzeko beharrezko betekizunak eta baldintzak, ikuspegi horretatik lanean jarraitu ahal izateko. Berrikuntza legez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren generoen araberako eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio txostena ezarri zen aurrekontuetan. Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak koordinatuko du txostenaren lanketa.*

impacto en función del género en la tramitación de las Normas Forales en Juntas Generales:

*3. "Igualmente, deberán ir acompañados del correspondiente informe de evaluación del impacto de género de las medidas establecidas en dichas disposiciones."*

La Orden Foral 2140/2009 de 23 de julio, del Departamento de Hacienda y Finanzas, a instancias del Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, por la que se establecen criterios en la elaboración de las memorias y de los objetivos, acciones e indicadores de los programas de gasto, atendiendo a las perspectivas de género y juventud.

La Orden se enmarca en la Ley 4/2005 de 18 de febrero y señala la necesidad de reconsideración y reorientación del sistema de objetivos, acciones e indicadores del Presupuesto, de manera que pueda articularse e implementarse una herramienta que permita la comprobación de los objetivos de igualdad fijados para cada programa presupuestario.

Las Directrices de Elaboración de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia 2014. Establece dentro de los Criterios de Presupuestación:

*Los Departamentos deberán valorar la incidencia de sus actuaciones en la igualdad de género y en materia de juventud. Para ello es necesario que la consecución de los objetivos de cada programa sea medida de forma adecuada por los indicadores fijados para ello. Mediante Orden Foral 2140/2009, de 23 de junio, del Diputado de Hacienda y Finanzas se establecieron, de forma más exhaustiva los requisitos y condiciones necesarios para la definición de objetivos, acciones e indicadores que nos permitan continuar trabajando desde esta perspectiva. Como novedad, en estos presupuestos se incorporará un informe de evaluación previa del impacto en función del género de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia. La Dirección General de Igualdad coordinará la elaboración de este informe.*

1.3. TXOSTENAREN PROZESUA ETA EGITURA

Bizkaiko Foru Aldundiak genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-prozesua abiarazi zuen 2004an. Prozesu horretan, gero eta ahalegin eta indar handiagoak bildu ditu zeharkakotasuna aurrekontuan txertatzeko lanak Berdintasuna Taldea Sail Arteko Batzordean. Honako txosten hau, beraz, ibilbide horretan kokatzen da, bertan du euskarri.

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2012-2015eko IV. Foru Planak, “Gobernantza” eremuaren baitan, aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesuarekin zuzenean loturiko hiru jarduketa biltzen ditu, sail guztiek gauzatu beharrekoak:

- “G.T.1.2.- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko IV. Foru Planerako proposaturiko helburuak garatzeko diru-baliabideak hornitzea”.
- “G.T.1.8.- Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenak egitea”.
- “G.E.1.9.- Genero ikuspegia Sailaren urteko aurrekontuan txertatzea 2140/2009 FArekin bat etorriz (09/09/15eko BAO), non genero adierazleak aurrekontuetan txertatzeko eskatzen den”.

Jarduketok behar bezala garatzeko aurrekontuak berriz bideratzeko eginkizun horretan, azterketak eta doikuntzak egin behar dira, arloa gaur egun lantzen deneko parte-hartze eremuetan.

Ildo horretan, ezarritako helburuetarako lehen azalpen-hurbilketa da honako txosten hau. IV. Foru Planean bildutako jarduketen garapenean aurrera egin ahala, edukiak handituz eta sakonduz joango dira aurrekontu arauen eraginari buruzko aurretiazko txostenetan. Horri esker, egokiago bete ahal izango da helburua.

1.3. PROCESO Y ESTRUCTURA DEL INFORME

La Diputación Foral de Bizkaia inició en 2004 un proceso de transversalización del enfoque de género. A lo largo de su desarrollo, el abordaje de la integración de esta perspectiva en la presupuestación, ha ido cobrando mayor esfuerzo y peso en el trabajo de la Comisión Interdepartamental Berdintasuna Taldea, por lo que este informe se encuadra y sustenta en esta trayectoria.

El IV Plan Foral de Igualdad para Mujeres y Hombres de Bizkaia 2012-2015, recoge, dentro del ámbito “Gobernanza”, tres actuaciones directamente relacionadas con el proceso de integración de la perspectiva de género en los presupuestos, a realizar por todos los departamentos:

- “G.T.1.2.- Dotación de recursos económicos para el desarrollo de los objetivos propuestos para el IV Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia”
- “G.T.1.8.- Realización de informes de evaluación previa de impacto en función del género”
- “G.E.1.9.- Integración de la perspectiva de género en el presupuesto anual del Departamento en coherencia con la OF 2140/2009 (BOB 176 de 15/09/09) en la que se insta a la incorporación de indicadores de género en los presupuestos”

Reorientar la presupuestación para desarrollar de manera óptima estas actuaciones requiere tiempo de análisis y ajustes en los marcos participativos en los que actualmente se trabaja en esta tarea.

En este sentido, este informe es un primer acercamiento expositivo hacia los objetivos marcados. A medida que se continúe avanzando en el desarrollo de las actuaciones recogidas en el IV Plan Foral, los informes previos de impacto de las normas presupuestarias, irán ampliando y profundizando sus contenidos, lo que permitirá que puedan cumplir de la manera más adecuada con su finalidad.

Hona hemen aurrekontuak aztertzea ahalbidetzen duen informazioa lortzeko prozesua, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2014rako Aurrekontu Orokorrak Egiteko Irizpideetan ezarritakoaren arabera:

1. Programak bost taldetan sailkatzea, berdintasun helburuak aurrekontu programa bakoitzean txertatzearen arabera.

2. Sailei bost txantiloi ematea, euren programak talde horietan koka ditzaten.

3. Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak berrikustea eta laguntzea.

Honela daude egituratuta dokumentuaren edukiak:

- Bizkaiko emakumeen eta gizonen egoera, gehienbat Foru Aldundiak jarduteko eskumenak dituen eremuetan.
- Aurrekontu programen gastuaren azterketa, programaren guztizko aurrekontuan duten eraginari eta aurrekontuan bildutako jarduketei dagokienez.
- Aurretiazko eraginaren ebaluazioa, betiere ezberdintasunen inguruko emaitzak kontuan izanik.

Azkenik, hobetzeko proposamenak bildu dira, berdintasunaren inguruko helburuak eremuetan eta aurrekontuak egiteko ondoko prozeduretan txertatzeko.

2. BIZKAIKO GIZON ETA EMAKUMEEN EGOERA

2.1. DEMOGRAFIA

El proceso seguido para obtener la información que permita el análisis de los presupuestos ha sido, siguiendo lo marcado en las directrices de Elaboración de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia 2014:

1º. Clasificación operativa de los programas en cinco Grupos, según la integración de los objetivos de igualdad en cada programa presupuestario.

2º. Facilitación de las cinco plantillas a los departamentos para el autoposicionamiento de sus programas en estos grupos.

3º. Revisión y apoyo desde la Dirección General de Igualdad.

Los contenidos del documento, se estructuran como sigue:

- Situación de mujeres y hombres en Bizkaia principalmente en aquellos ámbitos en los que la Diputación Foral tiene competencias de intervención.
- Análisis del gasto de los programas presupuestarios, respecto a su incidencia en el presupuesto total del programa y al tipo de actuaciones presupuestadas.
- Evaluación de impacto previo, teniendo en cuenta los resultados en relación con las desigualdades.

Finalmente, se incluyen las propuestas de mejora, para la integración de objetivos de igualdad en los distintos ámbitos y en sucesivos procedimientos de presupuestación.

2. SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES EN BIZKAIA

2.1. DEMOGRAFIA

**Populazioa BLHn // Población en el THB**

**1.158.439**




Iturria:: Estatistikako Erakunde Nazionala (INE) / Fuente: Instituto Nacional de Estadística (INE)

Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2012. urteko datuen arabera, 1.158.439 biztanle daude guztira, eta biztanle horietatik 597.305 emakumezkoak dira, hots, populazio osoaren %52. Gainera, emakume bizkaitarren %6 (37.370 emakume) atzerritarrak dira, Bizkaian bizi diren gizonezko atzerritarren ehunekoa baino pixka bat handiagoa.

INEk 2011n argitaraturiko datuen arabera, bizitza-esperantza 85 urtekoa da jaiotzean emakumeentzat eta 79 urtekoa gizonezkoentzat.

2012ko behin-behineko jaiotze-tasak erakusten duenez, 10.366 jaiotza izan ziren BLHn, 2008an baino 495 gutxiago; izan ere, urte hartan 10.861 izan ziren. Gainera, EAEko Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteetan (HBE) 2004tik 2011ra jasotako kopuruak izan behar dira kontuan (ondoko taulan ageri dira). Horrek guztiak adierazten du emakumeak ama izateko adina atzeratzen ari direla.

La población del Territorio Histórico de Bizkaia asciende, según los datos correspondientes a 2012, a un total de 1.158.439 personas, de las que 597.305 son mujeres, que representan el 52% del total de habitantes. Además el 6% de las vizcaínas (37.370 mujeres) son de origen extranjero, un porcentaje ligeramente inferior al de los hombres extranjeros residentes en Bizkaia.

Según los datos publicados por el INE en 2011, la esperanza de vida al nacer se sitúa en 85 años para las mujeres y para los hombres en 79.

El dato provisional de natalidad en 2012 señala 10.366 nacimientos en el THB, 495 menos que en el año 2008 cuando la cifra alcanzaba a 10.861. Esto unido a las cifras de Interrupciones Voluntarias del Embarazo (IVE) practicadas en la CAE desde el año 2004 al año 2011, que se muestran en la siguiente tabla, señalan indicios de una posposición de la maternidad por parte de las mujeres.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HBE kop.// N.º IVE** | 1.997 | 2.383 | 2.586 | 2.955 | 2.966 | 3.023 | 3.388 | 4.138 |

Iturria: Eustat – Estatistikako Euskal Erakundea / Fuente: Eustat- Instituto Vasco de Estadística.

Bizkaiko populazioaren ezaugarrietako bat ingurunearen nolabaiteko hiri izaera da. Biztanleen %96 hiri eremukotzat jotako udalerrietan bizi dira, hots, 1.108.235, eta horietatik 572.657 emakumezkoak dira[1]. Bizkaian, populazioaren %4 besterik ez da bizi horrelako udalerrietan, eta landa eremuetan bizi diren 50.204 pertsonetatik 24.648 emakumeak dira[2].

Una de las características de la población de Bizkaia, es el entorno semi- urbano del territorio. El 96% de la población vive en municipios considerados de ámbito urbano la cifra asciende a 1.108.235 habitantes de los que 572.657 son mujeres[1]. En Bizkaia solo el 4% de población vive en municipios de este carácter, de las 50.204 personas que reside en zonas rurales 24.648 son mujeres[2].

2.2. EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN ARLOKO BALIABIDEAK ATZITZEA ETA KONTROLATZEA

2.2. ACCESO Y CONTROL DE LOS RECURSOS ECONÓMICOS Y SOCIALES

2.2.1. LAN EKOIZKORRA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA

2.2.1. TRABAJO PRODUCTIVO Y AUTONOMÍA ECONÓMICA

- JARDUERA ETA ENPLEGU ALORREKO INDIZEAK

- ÍNDICES DE ACTIVIDAD Y EMPLEO

Lan ekoizkorraren eremuko egoerak pertsonen autonomia ekonomikoaren maila zehazten du. “Genero-koiunturari buruzko Buletina. Bizkaia 2013”[3] izeneko idazkian azaltzen denez, 2012. urtean zehar, emakumeen enplegua lehenengo aldiz % 2 gutxitu zen krisia hasi zenetik. Azpimarratu behar da 2012. urtea lehen urtea izan zela emakumeen lan-indarrak eta beraien enpleguak % 46ko proportzioa gainditzen zuena.

La situación en la esfera de trabajo productivo determina el nivel de autonomía económica de las personas. Tal y como se expone en el “Boletín de coyuntura de género. Bizkaia 2013”[3], durante el año 2012, el empleo de las mujeres ha disminuido por primera vez desde el comienzo de la crisis en un 2%. Se destaca el hecho de que el año 2012 haya sido el primero en que la proporción de mujeres tanto en la fuerza laboral como en el empleo supera el 46%.

[1] Eudel-ek (Euskal Udalerrien Elkartea) adierazitakoaren arabera, landa eremukotzat jotzen dira 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak. Hiri udalerriak Bizkaian/ Según las indicaciones de la Asociación de Municipios Vascos Eudel, los municipios de menos de 2.000 habitantes son considerados rurales. Municipios en Bizkaia de carácter urbano.: Abadiño, Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Bakio, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Berango, Bermeo, Berriz, Bilbo, Derio, Durango, Elorrio, Erandio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Gorliz, Gueñes, Igorre, Iurreta, Karrantza Harana, Leioa, Lekeitio, Lemoa, Lezama, Loiu, Markina-Xemein, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Orozko, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Sopela, Sopuerta, Ugao, Urduliz, Urduña, Trapaga, Zaldibar, Zalla, Zamudio.

[2] Landa udalerriak Bizkaian/ Municipios en Bizkaia de carácter rural: Ajangiz, Amoroto, Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Artea, Artzentales, Atxondo, Aulesti, Barrika, Bedia, Berriatua, Busturia, Dima, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Fruiz, Galdames, Gamiz-Fika, Garai, Gatika, Gautegiz Arteaga, Gizaburuaga, Gordexola, Ibarrangelu, Ispaster, Izurtza, Kortezubi, Lanestosa, Larrabetzu, Laukiz, Lemoiz, Mallabia, Mañaria, Maruri-Jatabe, Mendata, Mendexa, Meñaka, Morga, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi, Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Otxandio, Sukarrieta, Turtzioz, Ubide, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio, Zierbena, Ziortza-Bolibar.

[3] http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/(2013)%20Bolet%C3%ADn%20coyuntura%20g%C3%A9nero%20para%20bizkaia.pdf

## GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
## *INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO*

| | *Biztanleria aktiboa (milakotan) //* Población activa (miles) | | | *Emakumeen JARDUERAREN indizea //* Índice feminización ACTIVIDAD | *Biztanleria enplegatua (milakotan)//* Población empleada (miles) | | | *Emakumeen ENPLEGUAREN indizea//* Índice feminización EMPLEO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumk// Mujeres | Gizonak/ Hombres | Guztira // Total | | Emakumeak// Mujeres | Gizonak// Hombres | Guztira // Total | |
| **2011** | 254,5 | 304,7 | 559,2 | 45,50% | 222,8 | 262,1 | 484,9 | 45,90% |
| **2012** | 254,8 | 293,9 | 548,7 | 46,40% | 218,2 | 250,1 | 468,3 | 46,60% |
| **Gehikuntza// Incremento 2012-11** | **0,3** | **-10,8** | **-10,5** | **0,90%** | **-4,6** | **-12** | **-16,6** | **0,60%** |

Iturria: "Genero-koiunturari buruzko Buletina. Bizkaia 2013" // Fuente: Boletín de Coyuntura de Genero, Bizkaia 2013.

Grafikoan agertzen diren kopuru hauek erakusten digutenez, bada genero-etenik bai jarduera arloan eta bai enplegu arloan ere; eten hori 12 puntu ingurukoa da.

Estas cifras representan la existencia de una brecha de género tanto en la actividad como en el empleo, cercano a los 12 puntos.

| | *Jarduera-tasa// Tasa de Actividad* | | | *JARDUERAren genero-etena// Brecha de género* ACTIVIDAD | *Enplegu-tasa// Tasa de Empleo* | | | *ENPLEGUAren genero- etena// Brecha de género* EMPLEO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak// Mujeres | Gizonak// Hombres | Guztira// Total | | Emakumeak// Mujeres | Gizonak// Hombres | Guztira// Total | |
| **2011** | 48,7 | 63,2 | 55,7 | -14,5 | 42,8 | 56,7 | 49,5 | -13,9 |
| **2012** | 48,7 | 61,1 | 54,6 | -12,4 | 42,6 | 54,4 | 48,3 | -11,8 |
| **Gehikuntza// Incremento 2012-11** | **0** | **-2,1** | **-1,1** | **2,1** | **-0,2** | **-2,3** | **-1,2** | **2,1** |

Maila akademikoak eragina dauka emakumeek eta gizonek lan-munduan duten egoeran. 16 urtetik gorako biztanleriaren artean, emakumeen maila akademikoa, oro har, gizonena baino baxuagoa da, eta horrek desabantaila nabarmena dakarkie lan-aukerak atzitzeari dagokionez. Krisi ekonomikoak enplegu-tasak maila guztietan jaistea eragin du, baina emaitzarik txarrenak maila akademiko baxuagoa duten hiritar-taldeetan gertatu dira (lehen eta bigarren hezkuntza baino jaso ez duten kolektiboetan).

El nivel de instrucción influye en la situación de las mujeres y de los hombres en el mundo laboral. Entre la población mayor de 16 años, el nivel de instrucción de las mujeres es, por lo general, inferior al de los hombres, lo que las coloca en una situación de clara desventaja en relación a las oportunidades laborales. La crisis económica ha llevado a una reducción de las tasas de empleo en todos los niveles, pero los peores resultados se han producido en los colectivos con menor instrucción (educación primaria y secundaria).

## GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
## *INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO*

Oro har, maila akademikoak eragin argia du aukera gehiago edo gutxiago izatean; hala ere, ikusten denez, enplegua duten edo lan bila dabiltzan biztanleen artean emakumeek gizonek baina kualifikazio handiagoa dute. Horrek esan nahi du maila akademiko baxuagoa duten gizonek egoera horretan dauden emakumeek baino aukera gehiago dituztela lana aurkitzeko.

Si bien el nivel de instrucción influye en las mayores o menores oportunidades en general, se observa que entre la población con empleo o búsqueda de empleo, las mujeres poseen una mayor cualificación que los hombres. Esto implica que los hombres con menor nivel de instrucción, cuentan con mayores oportunidades que las mujeres en su misma situación.




Iturria: "Genero-koiunturari buruzko Buletina. Bizkaia 2013". // Fuente: Boletín de Coyuntura de Genero, Bizkaia 2013.

Kontratu moten kopuruen arabera, gizonen % 80ri egiten dizkiote kontratu mugagabea, eta emakumeen kasuan, berriz, kopuru hori % 74ra jaisten da.

Era berean, emakumeek aldi baterako kontratu gehiago sinatzen dituzte gizonek baino.

Según las cifras de los tipos de contratos, los hombres son contratados en el 80% de los casos de forma indefinida, mientras que en el caso de las mujeres es del 74%.

Las mujeres representan también el colectivo con mayor temporalidad en la contratación.




Iturria: “Genero-koiunturari buruzko Buletina. Bizkaia 2013”. //
Fuente: Boletín de Coyuntura de Genero, Bizkaia 2013.

Gizonak gehiengoa dute lansaio osoko kontratazioan (% 55), eta lansaio partziala duten langilerik gehienak emakumeak dira (% 81). Arestion aipatu dugun txostenean adierazten denez, 2013. urtea da lehen urtea lansaio osoko langileen kopuruak gora egin duena (% 3).

Los hombres son mayoría en la contratación a jornada completa (55%), siendo la mayoría de personas que desarrollan una jornada laboral parcial mujeres (81%). Según el informe mencionado, el 2013 es el primer año que ha aumentado, en un 3%, las asalariadas a tiempo completo.

2011. urteko datuek islatzen dutenez (horiek baitira eskura ditugun azken datuak), EAEn, batez besteko errenta pertsonala 17.362 eurokoa zen; horietatik 23.224 euro gizonei zegozkien, eta 11.857 euro, berriz, emakumeei. Azken kopuru hau gizonei dagokien batez besteko errenta pertsonalaren ia % 50a da. Horrek argi aski erakusten du alde handia dagoela sexu bien eros-ahalmenaren artean.

Los últimos datos disponibles, del 2011, reflejan que la renta personal media en la CAPV ascendía a 17.362 €, de los que 23.224 € correspondían a hombres y 11.857 € a mujeres: esta cifra es casi el 50% de la renta media que corresponde a hombres. Es una evidencia de la elevada diferencia existente en el poder adquisitivo entre ambos sexos.

Emakumeen enplegu-tasa txikiagoa izatea eta berauen lansaio-tasen portzentajea gizonena baino handiagoa izatea izan daiteke batez besteko errenta pertsonalaren gorabehera batzuk azaltzeko arrazoia; hala ere, bi generoen arteko aldea ikaragarria da.

La menor tasa de ocupación de las mujeres y la mayor parcialidad de las jornadas laborales pueden explicar algunas diferencias en la renta media personal, pero la distancia entre ambos géneros es abismal.

Bizkaian, 2012ko batez besteko errenta pertsonalaren guztirako zenbatekoa 17.332 eurokoa izan zen; hala ere urte horretarako ez dago sexuaren araberako datu xehekaturik, baina baldin eta Eustatek 2009. urtean batez besteko errentari buruz argitaratu zituen datuak aztertzen baditugu, joera antzekoa izan zitekeela esan dezakegu.

En Bizkaia el total de la renta personal media en 2012 es de 17.332 €, no se tienen datos desagregados por sexo relativos a este año, pero si se analizan los datos publicados por el Eustat en 2009 sobre la renta media, la tendencia puede ser similar.

- PERTSONEN BATEZ BESTEKO ERRENTA
- RENTA MEDIA DE LAS PERSONAS

| | **Euskal Autonomia Erkidegoa// Comunidad Autónoma de Euskadi** | | | **Bizkaiko Lurralde Historikoa// Territorio Histórico de Bizkaia** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Guztira/ Total** | **Gizonak/ Hombres** | **Emakumeak/ Mujeres** | **Guztira/ Total** | **Gizonak/ Hombres** | **Emakumeak/ Mujeres** |
| **2009** | 19.631 € | 25.376 € | 14.242 € | 19.241 € | **25.149 €** | **13.796 €** |
| **2012** | 17.362 € | 23.224 € | 11.857 € | 17.332 € | - | - |
| **Δ** | -2.269 € | -2.152 € | -2.385 € | -1.909 € | - | - |

Iturria: geuk egina, Eustat-eko datuetan oinarrituta. // Fuente: Elaboración propia a partir de datos del Eustat.

Batez besteko errenta pertsonaletan gertatu ziren gutxikuntzei doakienez, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen sarrerak 233 eurotan gutxitu ziren gizonen sarreren galeren aldean.

En los decrementos que se han producido en las rentas medias personales, se observa que los ingresos, en el caso de las mujeres de la CAE, se han reducido en 233€ más que los de los hombres.

- LANGABEZIA-INDIZEA
- ÍNDICE DE DESEMPLEO

Langabezian dauden biztanleen zenbatekoak zertxobait aldatu dira 2012. urtetik 2013. urtera. Lanik gabe dauden emakumeen kopuruak behera egin du, eta gizonenak gora egin du 3 puntutan. Oso garrantzizkoa da indize horretan, besteak beste, ondoko faktore hauek eragina dutela kontuan hartzea:

Las cifras de la población en situación de desempleo han cambiado levemente del año 2012 al 2013. El número de mujeres desempleadas ha disminuido y el de los hombres ha aumentado en 3 puntos. Es importante tener en cuenta que en este índice influyen los siguientes factores entre otros:

- Langabezian dagoen biztanleria zenbatesteko, Lanbideren langabezia-zerrendetan izena emanik duten pertsonak hartzen dira kontuan; horrek esan nahi du kanpoan uzten dela azpienplegaturik edo lanik gabe dagoen biztanleria.

- La población desempleada se contabiliza entre quienes están inscritas en las listas de desempleo de Lanbide, lo que deja fuera a la población sub o desempleada oculta.

**GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA**
***INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO***

- Oraingo krisiak gehienez gizonek jarduten duten arloak ukitu ditu: nekazaritza, industria eta eraikintza. Zerbitzuen arloan, berriz, eragina txikiagoa izan da, eta esan behar dugu arlo horretan jarduten dute gehienbat emakumeek.

- La crisis reciente ha afectado a los sectores en los se emplean mayoritariamente hombres: agrario, industrial y de la construcción. Y menos en el sector Servicios, en donde se emplean mayoritariamente las mujeres.

**Lanik gabeko biztanleria sexuaren arabera. Bizkaia 2012// Población desempleada por sexo. Bizkaia 2012**




**Lanik gabeko biztanleria sexuaren arabera. Bizkaia 2013// Población desempleada por sexo. Bizkaia 2013**




Iturria: Bizkaiko Lan Behatokia// Fuente: Observatorio laboral de Bizkaia

- POBREZIA ETA GIZARTE-BEREIZKERIA

Bizkaiko daturik ez dago, baina Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2012ko Inkestan islatzen denez, EAEn 2008. urtean benetako pobrezia- eta kolokatasun-egoera ezberdinen eragina handiagoa zen emakumeen artean.

2012. urtean, berriz, aldaketa txiki bat nabaritu zen metatze-pobreziaren eta benetako pobreziaren alorrean, horiek jasaten dituzten gizonen proportzioa hamarren bat handiagoa izan baitzen. Hala ere, benetako ongizaterik ezaren tasak emakumeen artean gora egin du gainerako biztanleriarenaren aldean. Ongizaterik ezak lan iraunkorra duen pertsona bat badaukaten guraso bakarreko familiak ukitzen ditu batik bat, eta bai lan iraunkorrik ez duen 45 urtetik gorako pertsona baten mendean bizi diren bi pertsonak edo gehiagok osatutako familia-taldeak eta erreferentziatzat 65 urtetik gorako emakume bat duten etxeak ere.

- POBREZA Y EXCLUSIÓN SOCIAL

La Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales del año 2012 refleja que en la CAPV la incidencia de las diferentes situaciones de pobreza y precariedad real en 2008 era mayor en las mujeres.

En 2012 se observa un leve cambio respecto a la pobreza de acumulación y la real, siendo mayor en una décima, la proporción de hombres que la sufren. Aunque la tasa de ausencia de bienestar real aumenta en las mujeres, respecto a la del resto de la población. Esta falta de bienestar afecta principalmente a familias monoparentales con una persona ocupada estable, grupos familiares centrados en un núcleo de dos o más personas encabezados por una persona mayor de 45 años sin ocupación estable y hogares cuya persona de referencia es una mujer mayor de 65 años.

**Benetako pobrezia- eta kolokatasun-egoera EAEn sexuaren arabera (%). 2012//**
**Situación de pobreza y precariedad real en la C.A.E según sexo (%). 2012**




| | Mantentze-pobrezia// Pobreza de Mantenimiento | Metatze-pobrezia// Pobreza de Acumulación | Benetako pobrezia// Pobreza Real | Benetako ongizaterik eza// Ausencia de |
|---|---|---|---|---|
| Guztira/ Total | 7,3 | 1,4 | 5,3 | 10,1 |
| Gizonak/ Hombres | 7,2 | 1,6 | 5,4 | 9,6 |
| Emakumeak/ Mujeres | 7,3 | 1,3 | 5,2 | 10,5 |

Guztira/ Total  Gizonak/ Hombres  Emakumeak/ Mujeres

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). 2012.//
Fuente: Departamento de Empleo y Asuntos Sociales. Encuesta de Pobreza y Desigualdades Sociales (EPDS). Año 2012

- GIZARTE-EKONOMIA

Gizarte-Ekonomiari buruzko azken Estatistikan 2010. urteko datuei buruz adierazten denaren arabera[4] Bizkaiko gizarte-ekonomiako 1.379 zentroetan Bizkaiko enpleguen % 4,9a biltzen zen. Sexuaren arabera, EAEko gizarte-ekonomiako enplegua, batik bat, industriaren arloan kokatzen zen, eta gizonek jarduten zuten sektore horretan gehienbat. Hala ere, Bizkaian gizarte-ekonomia hirugarren sektorera lerratzeko joera nabarmentzen zen, oro har txarrago ordaintzen diren alorretan; horrek esan nahi du emakumeen enpleguaren presentzia erlatiboa handiagoa zela arlo horretan.

- ECONOMÍA SOCIAL

Según la última Estadística de Economía Social, sobre datos de 2010[4], los 1.379 centros de economía social vizcaínos concentraban el 4,9% de los empleos de Bizkaia. Por sexo, el empleo en la economía social de la CAPV se ha caracterizado por situarse principalmente en el sector industrial, con una mayor representación de hombres. Sin embargo, Bizkaia se caracteriza por la tendencia a la terciarización de la economía social, en ámbitos generalmente peor remunerados, que se traduce en una mayor presencia relativa del empleo de mujeres.

[4] 2012ko ekainan argitaratua / Publicada en Junio de 2012

2.2.2. KULTURA ETA KIROL ARLOETAKO BALIABIDEAK ATZITZEA

- KIROL JARDUKETA

Bizkaian 2009. urtean kirolean jarduten zuen 6 urteko eta adin horretatik gorako biztanleriari buruz Eustatek adierazi dituen zenbatekoen arabera, inoiz ere ezelako kirol jarduketarik ez zutela egiten esaten zuten emakumeen portzentajea % 60,52koa zen, eta gizonena, berriz, % 39,48koa.

Era berean, Bizkaian eskuarki, asteburuetan, oporretan edo urtean lantzean behin kirol jarduketaren bat egiten zuten pertsonen artean ere gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa zen. Bizkaiari dagokionez, kirol jarduketaren bat egiten zuten gizonen eta mutikoen artean, % 36,42k eskuarki egiten zuten; emakumeen kasuan, berriz, % 30,55ekoa zen arrunki kirolean jarduten zuen portzentajea.

- KULTURA ARLOKO JARDUERAK

Emakunderen 2011ko Zifren agiriaren arabera, gizonak gehixeago joaten ziren EAEn kultura arloko jarduéretara emakumeak baino, eta gauza bera gertatzen zen Bizkaian ere.

Zenbait aukera eskaintzen dituzten jarduera motak garatzen diren inguruneei dagokienez ere aldeak nabaritzen dira; berbarako, emakumeek, etxean, gizonek baina musika gehiago entzuten dute eta gehiago irakurtzen dute. Gizonak, berriz, emakumeak baino gehiago joaten dira kontzertuetara.

- ETEN DIGITALA

2012. urtean “Euskal Autonomia Erkidegoan etxean Internet duten 15 urteko eta adin horretatik gorako biztanleriari buruzko Inkesta, sexuaren eta adinaren arabera eta lurralde historikoaren arabera (%)” izeneko inkesta argitaratu zuen Eustatek. Inkesta horretan agertzen diren datuen arabera, 15 urtetik gorako emakumeen % 63,7k Interneteko konexioa dute etxean.

2.2.2. ACCESO A RECURSOS CULTURALES Y DEPORTIVOS

- PRÁCTICA DEPORTIVA

Según las cifras de Eustat sobre la población de 6 y más años de Bizkaia, que realizaba deporte en 2009, las mujeres que decían no realizar nunca ninguna práctica deportiva eran un 60,52% frente a un 39,48% de los hombres.

De igual manera, de las personas que sí realizaban alguna práctica deportiva, ya fuese habitualmente, los fines de semana, en periodos vacacionales o alguna vez al año en Bizkaia, los hombres representarían un porcentaje mayor que las mujeres. En el caso de Bizkaia, de los hombres y niños que realizaban alguna actividad deportiva, un 36,42% lo hacía habitualmente, lo que ocurría solo en un 30,55% de los casos entre este grupo de mujeres.

- ACTIVIDADES CULTURALES

Según el documento de Cifras de 2011 de Emakunde, la asistencia a las actividades culturales presenta unas ligeras diferencias a favor de los hombres en la CAPV e igualmente en Bizkaia.

Se observan algunas diferencias también respecto al entorno en el que se desarrollan aquellos tipos de actividades que ofrecen distintas posibilidades, siendo más frecuente por ejemplo el disfrute de la música o lectura dentro del hogar para las mujeres y la asistencia a conciertos para los hombres.

- BRECHA DIGITAL

Según los datos de Eustat en la “Encuesta de Población de 15 y más años de la C.A. de Euskadi con Internet en el hogar por sexo y edad, según territorio histórico (%)” publicada en 2012, el 63,7% de las mujeres mayores de 15 años vive con conexión a Internet.

Internet erabiltzen duten pertsonen gainean Eustatek 2013ko urteari buruz behin-behinean eman dituen datuetan agertzen denez, Bizkaiko 15 urtetik gorako emakumeen biztanleriaren % 60,1ek Internet erabiltzen dute; adin-talde horretako gizon erabiltzaileei dagokienez, berriz, portzentajea % 70 ingurukoa da.

Eten hori gazteen adin-tarteetan hain nabarmena ez bada ere, apurka-apurka nabarmentzen hasten da adinean gora egiten dugun heinean. Emakume nagusiek osatzen duten taldea biztanleriaren sektore bereziki kaltebera da teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak eta ahalbideak erabiltzetik at geratzeari dagokionez.

2.3. GIZARTE ETA POLITIKA ARLOETAKO PARTAIDETZA

Gizarte eta politika arloetako partaidetzaren eta eragiteko eta erabakitzeko ahalmenaren barruan, hainbat azterlan-eremu daude: eremu politikoa, maila batzuetan zein besteetan, sindikatuena, finantza, lanbide eta enpresa eremua, azken batean gizarte osoari dagozkion erabakiak hartzen direneko eta gizarte osoari eragiten zaioneko eremu guztiak.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren kopuruak ez dira oso diferenteak lurralde-eremu handiagoak hartzen dituzten kopuruekin alderatuta, adibidez Autonomia Erkidegoko kopuruekin. Kopuru horiek orokorrean ageri-ageriko desberdintasuna agerrarazten dute. Emakumeek ordezkaritza txikiagoa daukate, eta arazo hori are larriagoa da enpresa- eta finantza-arloetako erakundeek osatutako erabaki-guneetan.

Egoera horren adibide gisa, 2012ko edo 2011ko datuekin, adierazleen arabera[5]

- IBEX 35 indizeko euskal enpresetako Administrazio kontseiluen % 85 baino gehiago gizonek osatzen zituzten.

Según el avance de datos provisionales del año actual 2013, de Eustat, sobre las personas usuarias de Internet, el 60,1% de la población de mujeres de Bizkaia mayores de 15 años son usuarias, mientras que los hombres usuarios de la misma franja de edad representan en torno al 70%.

Si bien esta brecha no es tan evidente en los tramos de edad más jóvenes, sí que lo es cuando se va avanzando en edad. Las mujeres mayores son un sector de la población especialmente vulnerable a quedarse desconectada de las posibilidades y potencialidades que ofrecen las nuevas tecnologías.

2.3 PARTICIPACIÓN SOCIOPOLÍTICA

La participación sociopolítica y la capacidad de influencia y decisión, engloba distintos ámbitos de estudio: el político en sus diferentes niveles, el sindical, el financiero, profesional y empresarial, en definitiva todos aquellos marcos en los que se incide y se toman decisiones que afectan a la sociedad en su conjunto.

Las cifras del Territorio Histórico de Bizkaia no difieren de manera sustancial de otras que abarcan demarcaciones territoriales más amplias, como es el caso de la Comunidad Autónoma. Estas presentan en general una desigualdad manifiesta, con una infrarrepresentación de las mujeres, que se agranda en los foros de decisión formado por entidades del ámbito empresarial y financiero.

Como ejemplos de esta situación, con datos de 2012 o 2011 según los indicadores[5]:

- Los consejos de Administración de las empresas vascas del IBEX 35, estaban formados en más de un 85% por hombres.

[5] http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/%282012%29%20Participaci%C3%B3n%20pol%C3%ADtica%20de%20las%20mujeres%20en%20bizkaia.pdf

